

HONDARRIBIKO, GETARIKO ETA ORIOKO KIROL-PORTUETAN SEGURTASUN- ETA ZAINZA-ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ESLEIPEN-EBAZPENA

2014ko abenduaren 5ean EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A. enpresak EHAAn eta Diario Vasco eta Deia egunkarietan Hondarribiko, Getariko eta Orioko kirol-portuetan segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak kontratatzeke iragarkia argitaratu zuen.

2015eko urtarrilaren 12an, EKPren bulego nagusietan, A gutun-azala irekitzeari ekin zitzaion. “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMEN EKONOMIKO NAHIZ TEKNIKOA” Administrazio Agiriak eskatutako dokumentazio orokorra zuen. Hurrengo eskaintzek hori behar bezala, guztia osatua eta oinarriei egokitua aurkeztu zuten:

- 1.- SEGURIDAD EMPRESARIAL NAVARRA,S.L. (SEN SEGURIDAD)
- 2.- ALTA SEGURIDAD,S.A. ALSE
- 3.- G.S.I., PROFESIONALES DE LA SEGURIDAD Y SISTEMAS, S.A.U.
- 4.- INVICO, INTEGRAL DE VIGILANCIA Y CONTROL, S.L.
- 5.- DELTA SEGURIDAD,S.A.
- 6.- G.S.3 DIVISION DE SEGURIDAD, S.L.
- 7.- PROTECCIÓN Y SEGURIDAD TÉCNICA,S.A., PROSETECNISA
- 8.- CIS, COMPAÑÍA INTEGRAL DE SEGURIDAD,S.A.
- 9.- PROTECCIÓN PATRIMONIOS,S.A.
- 10.- OMBUDS CIA. DE SEGURIDAD,S.A.

2015eko urtarrilaren 15ean “IRITZIA ESKAINTZEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK” C gutun-azala ireki zen.

C gutun-azala ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako eskaintzen azterketa zehatza egin zuen, kontratazioa arautu duen Administrazio Baldintza Berezien Agiriak 17. klausulan xedatutako balioztapen-irizpideekin bat.

Ondoren, kontratazio-organoak txostena egin zuen.

2015eko otsailaren 5ean “FORMULAREN BITARTEZ ZENBAT DAITEZKEEN IRIZPIDEAK” B gutun-azala irekitzeari ekin zitzaion. Aldez aurretik bertaratutakoei A gutun-azalak zituen dokumentuen kalifikazioa eta C gutun-azalaren ebaluazio-emaitza jakinarazi zitzaizkien.

B gutun-azala ireki ostean, eskaintzaileek C eta B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta ebaluatzen honako azken puntuazioak lortu dira:

ENPRESA	C GUTUN-AZALA	B GUTUN-AZALA	GUZTIRA
Delta seguridad, S.A.	51.31	30	81.3
Alta Seguridad, S.A. Alse	49.01	28.04	77.05
Protección y Seguridad Técnica, S.A. Prosetecnisa	47.47	28.88	76.35
Invico, Integral de vigilancia y control, S.L.	46.4	28.31	74.71
Protección Patrimonios, S.A.	38.18	28.49	66.67
GSI, Profesionales de la Seguridad y Sistemas, S.A.U.	35.15	28.94	64.09

Eskaintza guztiak ireki eta balioztatu ondoren, puntu gehieneko eskaintza aurkeztu zuen eskaintzaileari (Delta Seguridad, S.A.) kontratazio-organoak kontratazioa arautu duen Administrazio Baldintzen Agiriak 20. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkez zezan eskatu zion.

Delta Seguridad enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio-organoak ondorengo

EBATZI DU

Hondarribiko, Getariko eta Orioko kirol-portuetan segurtasun- eta zaintza-zerbitzuen kontratazioa DELTA SEGURIDAD, S.A. sozietateari esleitzea.

Kontratazio-organoaren ebazpena Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat dator.

DELTA SEGURIDAD sozietateak eskaintzak balioztatu direnean ondorengo puntuak lortu ditu: 81.3 puntu guztizko 100 punturen gainean. Puntuak hurrengo moduan banatu dira:

LORTUTAKO BALIOZTAPENA:

IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
ESKAINZA EKONOMIKOA	30
LAN-PROGRAMA	29.31
GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK	6.25
ESPERIENTZIA ETA TXOSTENAK	12.75
HOBEKUNTZAK	3
GUZTIRA	81.3

Esleipen hau enpresa eskaintzaileei jakinaraziko zaie.

Administrazio Baldintza Berezien Agiriak 22. klausulan xedatutako epean, enpresa esleipendunak klausula horrekin zerikusia duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, kontratua legezatu ahal izateko.

Gasteizen, 2015eko otsailaren 17an

**SIN.: EDURNE EGAÑA MANTEROLA
EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.KO ZUZENDARIA**